



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



GIZONDUZ
EKIMENA
2013

AURKIBIDEA

1 SARRERA

2 2013AN EGINDAKO JARDUERAK

2.1 WEBGUNEA

2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

2.3 GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 PROIEKTUA

2.4 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA

2.5 NAZIOARTEKO HARREMANAK

2.6 AHOLKULARITZA

1 SARRERA

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatzea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea.

Helburuak **Gizonduz ekimena sortzen duen agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:


- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Hasiera batean Gizonduz ekimenaren iraupena 2007ko azarotik 2009ko abendura artekoa izatea planteatu zen arren, bi urte horietan izandako balioespena ona izan denez, Gizonduz ekimenaren jarraitzea erabaki zuten Emakundek.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **Gizonduz ekimenaren memoria 2007-2010 epealdia**, **2011n egindakoen memoria**, **Gizonduz ekimena** eta **2012an egindakoen memoria**. **Gizonduz ekimena**.

2 2013an EGINDAKO JARDUERAK

2.1 WEBGUNEAK




2008ko apirilean, berdintasunaren aldeko gizoni buruzko webgune espezializatuak sortu genuen (www.euskadi.net/gizonduz), eta hori kudeatzen jarraitu genuen 2012an. Webgunean, ekimenari buruzko informazio ugari daiteke, hainbat euskarritan, bai eta atal hauek ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra gutunari atxikitzeko eremua, eta abar.

2012. urtean, Gizonduz ekimenaren webguneak 17.552 bisita jaso zituen; 2013an, berriz, 23.278 bisita, guztira 40.932 orrialde kontsultatzeko. Bisita horietatik 15.983 aurrenekoz egindakoak izan ziren, esklusiboak, eta % 68, webgunea aurrez bisitatu ez zutenek egindakoak.

2013an, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako bisitak honela banatu ziren:

Euskadiko Autonomia Erkidegoa bisitak



% 68,07 Bilbotik egin ziren, % 16,19 Gasteiztik eta % 15,72 Donostiatik.

Bisiten % 1,8 Iruñetik egin ziren. Espainiako Estatutik ere egin ziren bisitak; % 8 Madrildik eta % 3 Bartzelonatik.

Estatistika-txostenen arabera, webguneak bost kontinenteetatik jaso ditu bisitak. Herrialdeka, Gizonduzen webgunea bisitatu zutenetatik % 2,4k Mexikotik egin zuen, % 2k Kolonbiatik, % 1ek Venezuelatik, Perutik eta Argentinatik, % 0,8k Frantziatik eta % 0,5ek Estatu Batuetatik.

Erabiltzaileek webgunea bisitatzeko hautatutako hizkuntza: % 94,5ek gaztelaniazko bertsioa erabili zuen, % 3,5ek euskarazkoa eta % 2k ingelesezkoa.

2.1.1 Bloga

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazioa proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin lotutako gaiei buruzko iritzia, gogoetak eta iruzkinak aditzera emateko.

2013ko urtarriletik abendura, 89 sarrera kargatu ziren, honela sailkatuta: erakundeen ekimenak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, gizonen taldeak

eta gizonak eta berdintasuna. Gizonduz ekimenaren bloga 2008ko uztailean abiarazi genuenetik, 689 sarrera kargatu dira.



2.1.2 Elkarrizketak

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsoneri egindako elkarrizketak biltzen ditugu. 2013an, hauek elkarrizketatu genituen:

- **Maxi Gutiérrez Jodra**, familia-medikua, generoan eta osasunean espezialista.
- **Juanjo Comparé**, irakasle erretiratu, alaba baten aita. HOMES IGUALITARIS (AHIGE- Catalunya) elkarteko kide da, bai eta elkartearen Estatuko koordinakundeko kide ere.
- **Josetxu Riviere Aranda**. Generoan eta maskulinitateetan aditua. Gizonduzen prestakuntza-programaren koordinatzailea eta Berdintasunaren aldeko Gizonen Sareko kidea.
- **Encarna de la Maza González**. Erizaintzako SATSE sindikatuko antolamendu-idazkaria Euskadin.

2.1.3 Sare sozialak


2011n, Facebooken Gizonduzen erakunde-orria sortu genuen, 2009tik zeukan profiletik edukiak migratzeko prozesua gauzatu ostean. Webgune hori eta Gizonduzek YouTubeen eta Vimeon dituen profilak administratu eta eguneratu genituen aldizka.

Gizonduzen Facebookeko orria atsegin dutenen kopuruak 5.000ren langa gaitu zuen 2013an. Gainera, orri hori da, Gazte Aukerarena eta gero, Eusko Jaurlaritzakoe-tatik Facebook-lagun gehien dituenena. 2013an, batez bestean, 4.935 lagun zituen. 80 argitalpen sartu genituen, eta haietako bakoitzak 445 bisita inguru jaso zituen.

2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren lehenengo edizioa jarri genuen abian.


Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik 2013ra arte, ikastaroetan, aurrez aurrekoetan nahiz online, 7.471 lagun izan dira guztira: 3.952 gizon (% 52,9) eta 3.519 emakume (% 47,1).



2.2.1 Aurrez aurreko ikastaroak


2009tik 2013ra, biak barne, 289 aurrez aurreko ikastaro egin dira. 6.469 lagunek parte hartu dute horietan: 3.624 gizonak eta 2.845 emakumeak.

Ikastaro horiek honela banatzen dira:



	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	241	512	753
2010	900	895	1795
2011	638	821	1459
2012	677	768	1445
2013	389	628	1017
	2845	3624	6469

Ikastaro motari dagokionez, 2009tik 2013ra, biak barne eta emandako orduen arabera taldekatuta, ikastaroen banaketa honako hau da:




Ikasleen % 29,8k 2 orduko ikastaroetan hartzen du parte eta % 15,7k hiru ordukoetan; alegia, aurrez aurreko ikastaroetara doazenen erdiak. 4 eta 10 ordu arteko ikastaroetan % 45,6k hartzen du parte eta hamar ordutik gorakoetan % 8,9k.

2013an, gizon-ikasle gehien dituzten ikastaroak indartu dira eta garrantzi handiagoa eman zaie beren lanagatik edo gizartean betetzen duten rolagatik eragin biderkatzailea izan dezaketen pertsonentzako ikastaroei, parte-hartzaile bakoitzak ikasitako edukiak eta egindako gogoetak lan-arloan edo jendartean baliatu ditzan. Ondorioz, 2013an behera egin du ikasle-kopuruak, baina handitu egin da gizon-kopurua: ikasleen % 61,75 gizonak dira eta % 38,25 emakumeak. Halaber, nabarmen murriztu da bi orduko ikastaro-kopurua

2013ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Ikastaro motak, iraupenaren arabera	Ikastaroen iraupena, guztira (ordutan)	Ikasleak, guztira	Ikasleen %	Gizonak	Emakumeak
Bi ordukoak	2	4	30,38%	4	0
Hiru ordukoak	15	90	14,60%	63	27
4 eta 10 ordu bitartekoak	178	835	35,02%	528	307
10 ordukoak edo gehiagokoak	71	88	20,00%	33	55
Guztira	266	1.017	100%	628	389



Erakunde antolatzaileen arabera, hauek izan ziren aurrez aurreko ikastaroak:

Gasteizko Udalarekin elkarlanean, hezkuntza-zentroetan antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
Vitoria- Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria- Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria-Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria- Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria-Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria- Gasteizko Udala. Koldo Mitxelena Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 3. mailako ikasleak	4
Vitoria-Gasteizko Udala. Iksbidea Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 2. mailako ikasleak	4
Vitoria- Gasteizko Udala. Iksbidea Institutua	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 2. mailako ikasleak	4

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
Vitoria-Gasteizko Udala. Jesus Obrero Institutua	Ni maitatzera ausartzen zara?	HLKPeKo 1. mailako ikasleak	4
Vitoria-Gasteizko Udala. Jesus Obrero Institutua	Ni maitatzera ausartzen zara?	HLKPeKo 1. mailako ikasleak	4
GUZTIRA			40

Sindikatuekin eta enpresekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
SATSE sindikatua	Lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioa, eta identitate maskulinoen eraikuntza.	Bertako langileak	5
CIR USOA tailerra	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
CIR USOA tailerra	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Ingeteam	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan.	Bertako langileak	3
Ingeteam	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan.	Bertako langileak	3
Ingeteam	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan.	Bertako langileak	3
Ingeteam	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan.	Bertako langileak	3
Ingeteam	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan.	Bertako langileak	3
Ingeteam	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Ingeteam	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Ingeteam	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Ingeteam	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Ingeteam	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
OROTARA			55

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
Abanto Zierbenako Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Jendea, oro har	4
Bergarako Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Gizonezkoak, oro har	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Bilboko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Suhiltzaileak	4
Ondarroako Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Gizonezkoak, oro har	5
Bizkaiko Foru Aldundia	Gizonak, berdintasuna, erantzukidetasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	9
Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak, eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa	Bertako langileak	10
Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Biltzen	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak. Aurreratua.	Immigranteen kolektiboetako kideak	16
Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak, sexu-jazarpena eta laneko segurtasuna	Bertako langileak	10
Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	5
Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila	Lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioa, eta identitate maskulinoen eraikuntza	Bertako langileak	5
Eusko Jaurlaritza. Emakunde	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak. Aurreratua.	Jendea, oro har	20
Basurtuko ospitalea. Etengabeko prestakunza	“Gizona eta osasuna” eta “Osasun-eremuaren zeregina genero-indarkerian”	Bertako langileak	6

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
Basurtuko ospitalea. Etengabeko prestakuntza	“Gizona eta osasuna” eta “Osasun-eremuaren zeregina genero-indarkerian”	Bertako langileak	6
Basurtuko ospitalea. Etengabeko prestakuntza	“Indarkeria maskulinoak eta emakumeen kontrako indarkeria”	Bertako langileak	6
Arratiako Mankomunitatea	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	4
GUZTIRA			134

Hezkuntza-entitateekin elkarlanean antolatutako aurrez aurrezko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
BIZKOTXALDE eskola-Basauri	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta programa Nahiko	Irakasleak	4
Lan Harremanen Unibertsitate Eskola. EHU	Maskulinitateak, berdintasuna eta laneko arriskuak	Ikasleak	5
Esperientzia Gelak. EHU	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	6
GUZTIRA			15

Elkarteekin elkarlanean, ikastetxeetan antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen (orduak)
UNA elkarte	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Jendea, oro har	2
Zubietxe	Arriskuak murriztea, droga-mendekotasunak prebenitzea eta identitate maskulinoak eraikitzea	Profesionalak eta bolondresak	5
Psikologia Eskola	Indarkeria maskulinoak: indarkeria legitimatzea gizonen identitatea eraikitzerakoan.	Profesionalak	15
GUZTIRA			22

Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta.

Ikastaroaren balorazio orokorra	5,1
Ikasgaiaren inguruan lehendik zeneuzkan ezagutzak	3,8
Edukia	4,9
Hizlaria	5,3
Dinamizazioa	5,0
Taldearen partaidetza	4,5
Antolaketa	4,4
Eremua	5,0
Erabilitako materialak	4,8
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako ? (%)	% 93
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? (%)	% 83

Aurreko taulan aztertutakoez gain, inkesten datuen arabera, alderdi positiboen artean dago ikastaroek errealitateari begiratzeko modu berri bat proposatzen dutela, eta, genero-ikuspegiari esker, errealitatea hobeto ezagutu daitekeela. Aurkeztutako eduki teorikoen eta eguneroko bizitzaren arteko lotura ere nabarmentzen da. Ikastaroen dinamismoa eta parte-hartzean oinarritua izatea azpimarratzen da. Ikasle gizonen eta emakumeen arteko truke-gunea eduki ahal izateari garrantzitsu irizten zaio. Halaber, adierazitako iritzien askotarikotasuna eskertzen da.

Hobetzeko proposamenen artean, oraindik ere ikastaroari denbora gehiago eskaintzea da gehien aipatutakoa. Lau orduko ikastaroen kasuetan bezala, luzeagoetan ere (sei, bederatzi edo hamar ordukoetan) gauza bera esaten dute. Beste proposamen bat da ikastaroaren alderdi praktikoa hedatzea.

Ikasleek sakonago ezagutu nahi lituzketen alderdiak beren esku-hartzeko esparru profesionalarekin, adingabeen hezkuntzarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura zuzena dutenak dira.

2.2.2 Jardunaldietan eta kongresuetan parte hartzea

Bestalde, ekimena hedatze aldera, hainbat komunikabidetan izan gara, eta sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Hona hemen aipagarrienak:

- AHIGE Catalunya Sant Boi de Llobregaten azaroaren 8, 9 eta 10 egunetarako antolatutako «Trobades estatal i nacional D'homes per la igualtat».
- «Ahalduntze kolektiboa emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean». Gasteizko udalak azaroaren 19tik 21era antolatutako «Ahalduntzea helmuga eta lan-metodologia gisa. Gogoetak eta esperientziak».
- «I. Maskulinitateen Nazioarteko Kongresua: ikuspegi teorikoak eta araudi-eraginak», Madrileko Carlos III. Unibertsitateak azaroaren 10ean eta 11n antolatua.

2.2.3 Internet bidezko ikastaroak


Gizonduzen sentsibilizazioko eta prestakuntzako online ikastaroak martxan jarri zirenetik, bi ikastaro mota eskaini dira. Lehen, **Gizonentzako berdintasunari buruzko online sentsibilizazio-ikastaro oinarrikoa** da; Gizonduzen web-orrian zuzenean jarraitu daiteke. Bigarrena, eduki eta iraupen gehiagokoa da: **Gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko online ikastaroa**; 60 orduko iraupena du.

60 orduko prestakuntza-ikastaroan, eskaria eta eskaintza handituz joan dira pixkanaka. Zortzi ordukoaren kasuan, berriz, nabarmen jaitsi da eskaria.

2.2.3.1 Online sentsibilizazioa

Ikastaro horretan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexua-ren araberako rolek eta estereotipoek sozializazioan duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspena, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizakion bizitzan duen garrantzia, gizonen parte-hartzea etxeko lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan, sozializazio sexistak gizonengan eragiten dituen genero-arazoak, indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina, eta abar.

Ikastaroak 8 ordu irauten du gutxi gorabehera, eta eguneko 24 orduetan egin daiteke. 2009an jarri zen abian. 2009tik eta 2013 arteko edizioetan (biak barne), 526 lagunek ongi bukatu zuten ikastaroa: 364 emakumek eta 162 gizonek.



2013an, 50 lagunek amaitu dute ikastaroa: 30 emakumek eta 20 gizonek. Beraz, behera egin du partaideen kopuruak, gizonetako kasuan zertxobait gora egin duen arren.

Ikastaroaren gaineko balorazioa (sei puntutik)

Ikastaroaren balorazio orokorra	5,1
Ikasgaiari buruzko ezagupenik ba al zenuen lehendik?	4,1
Ikastaroaren elementuak: Edukiak	4,8
Ikastaroaren elementuak: erabilitako materialak	4,5
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako ?	% 97
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako?	% 97

Arazo teknikoei dagokienez, pertsona batek bakarrik adierazi du ezin izan dituela materialak deskargatu eta beste batek baizik ez ezin izan duela ziurtagiria deskargatu.

Ikastaroaren hiru alderdi positiboak zehazteko atalean, lagun batzuek adierazi dute ikastaro guztia izan dela haien interesekoa. Beste batzuei denboren erabilera-aren testa interesekoa iruditu zaie.

Hobekuntza-proposamenei dagokienez, parte-hartzaile batzuen arabera, ikastaroa zabaltzea interesgarria litzateke. Beste batzuek ez zuten zer hobetu proposatu, zegoen bezala osoa iruditu zitzaielako.

Sakondu beharreko alderdiei dagokienez, batzuen iritzian, ikastaroko alderdi guztiak sakonago landu beharko lirateke. Beste batzuek gizonentzako ekintza positiboko neurrietan sakontzea proposatu dute.

Ondorioak

Ikastaroak, oro har, oso balorazio ona jaso du (6 puntutik 5,1); are gehiago, kontuan izanda partaideek gaiaren inguruan ezagutza nahiko zabala zutela alde aurretik (4,1). Ikastaroaren edukiek, halaber, balorazio ona jaso dute (4,8). Notarik baxuena erabilitako materialei dagokie (4,5).

Azpimarratu beharra dago, partaide ia guztien iritziz (% 97), ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonal eta profesionalerako.

2012ko edizioan, nabarmen jaitsi zen partaideen kopurua, eta joerak bere horretan jarraitu du 2013an. Hori dela eta, berritu egingo dira ikastaroa oinarritzen tresna informatikoa eta edukietako batzuk.

Bestalde, ikastaroa egin dutenen artean, % 30,7 baino ez dira gizonak izan. Hortaz, eta kontuan hartuta ikastaroa berariaz gizonaentzatzat dela, ez dugu sektore horretara iristeko helburua bete.

2.2.3.2 Online Prestakuntza

Gizonduzek eskaintzen duen internet bidezko 60 orduko ikastaroa 2009 irailaren 21etik abenduaren 21era bitartean egin zen aurrenekoz.


60 orduko online ikastaroaren eskariak gora eta gora egin du urtez urte: 2009an 79 parte-hartzaile zituen; 2013an, berriz, 215. Urtero geratzen dira ikastaroa egin ezinik pertsona asko, eskainitako lekuak betetzen direlako. Ikastaroa doakoa izatea abantaila ageriko da, baina, era berean, oztopo ere izan daiteke pertsonen hasi eta buka

egiteari dagokionez: izena emandako pertsona-kopurua eta ikastaroa bukatzen dutenena ez datoz bat.

60 orduko online prestakuntza-ikastaroaren bost edizioetan, 782 lagunek parte hartu dute guztira: 303 gizonak (% 38,74) eta 479 emakumek (% 61,25).

Nabarmentzekoa da gora egin duela ikastaroa bukatzen dutenen pertsonen ehunekoak. 2013an, 215 matrikula egin ziren guztira; horietatik 167 ikaslek bukatu zuten ikastaroa (% 77,67). 2012an, berriz, 210ek eman zuten izena, eta % 52,8k bukatu zuten. 2012ko eta 2013ko edizioetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, 100 leku erreserbatu ziren irakasleentzat, Garatu prestakuntza-programari jarraiki. Hori dela eta, emakume-ikasleen kopuruak gora egin du azken urteetan.

60 orduko online ikastaroa egoki bukatzen duten ikasleak.



	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	14	27	41
2010	39	37	76
2011	29	52	81
2012	97	14	111
2013	131	36	167
	310	166	476

Ikastaroaren edizio honetan, halaber, aurrez aurreko saio bat antolatu genuen Ander Bergara Sautuarekin, «Gizonei bideratutako berdintasun politikak: esperientziak eta erronkak» izenburupean. 34 pertsona bertaratu ziren; baina ikasle guztiek Internet bidez jarraitzeko aukera zuten, zuzenean edota Irekia kanaleko grabazioaren bitartez. Gai horri buruz aurrez aurreko saioko foroan 136 gai eztabaidatu ziren. Jarduera hori sendotu egin da ikastaroaren barruan, eta balorazio bereziki ona jaso du.

Ikasleek ikastaroaren inguruan adierazitako iritziari dagokionez, edukiak, erabilitako materialak eta egindako jarduerak nahiko egokitzat eta oso egokitzat jo zituzten, % 90etik gorako balorazioa emanda. Horrek esan nahi du oso altua izan zela gogobetze-maila.

2.3 GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 PROIEKTUA

2013an zehar, «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» proiektuaren inguruko lanei eutsi zitzaizen diseinua prestatu da, EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan. Proiektuaren xedea da nerabeen eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarritutakoak.

Proiektuak hiru plataforma ditu:

- Informazio-web edo erakustoki bat: proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango du.
- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Komunitate birtuala: nerabeen arteko komunikaziorako eta partaidetzazko guneak sortuko ditu.



2.4 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA

Aurreko urteetan bezala, 2013an ere, Gizonduzen ikastaroez gain, hedapena eman genien HAEEek berdintasunarekin lotuta eskaintzen dituen unibertsitateko masterrei, gradu-ondokoei, eta ikastaroei, bai eta Berdintasunerako Foroak antolatutako jarduereri ere, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan gizonen partaidetza areagotzeko xedearekin. Horretarako, buletin elektronikoaz eta Gizonduzen webguneaz baliatu ginen horiei guztiei publizitatea emateko.

2.5 NAZIOARTEKO HARREMANAK

Europako Genero Berdintasunerako Institutuak (EIGE) antolatutako mintegi batera Emakunde gonbidatua izan zela baliatuz, Gizonduz ekimeneko koordinatzailea, Ander Bergara, Christian Veskerekin batu zen, EIGEko Gizonak eta Genero Berdintasuna atalaren buruarekin. Bilera horretan erakunde biek arlo horretan garatutako esperientziak eta dituzten ikuspuntuak partekatu eta etorkizunari begira lankidetzarako bideak jorratu zituzten. Lankidetzarako asmo on hori garatzeko lehenengoetako ekintzak izan dira Emakundek EuroGender Sarearen partaide egitea eta Lazo Zuriaren Kanpainaren inguruan EIGEk azaroaren 29an antolatu zuen internet bidezko jardunaldi batean parte hartzea.

2.6 AHOLKULARITZA

Azkenik, 2013an, 272 kontsultari erantzun genien, aurrez aurre nahiz posta elektronikoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuek.



Manuel Iradier, 36

01005 Vitoria-Gasteiz

TEL 945 01 67 00

MAIL emakunde.gizonduz@ej-gv.es